

Ariketa hauek Ikasbileko 1973036 atazan aurkituko dituzu

Audioaren erreferentzia: JJ-45 Kla!

Mailak: B2-C1

Funtzioak: Itxurari buruzko ohiturak azaldu, eztabaidan parte hartu, balorazioak egin

Adierazpide linguistikoak: lexikoa (*gonbidatu, afaldu, konturatu, orrazkera, guapa, lotan, oheratu, ..*), *alegiatzko baldintza*

Azken ekintza: Debatea: Garrantzitsua al da harreman sozialetan itxura zaintzea?

EGITEKOAK

1-Ikasgelara etorri aurretik egitekoa.

1.1 Apain-apain jarrita: Mintza-saioa prestatzeari zuzendutako ariketa. Norbaitekin irteteko, afaltzera joateko... geratzen denean gure itxurari nolako garrantzia ematen dion aztertzeko galdetegiari erantzun behar diote ikasleek.

2- Ikasgelan amaitu ondoren egitekoak.

“ezer esan ez banizu, ez zinen konturatuko” esaldiari erreparatu eta alegiazko baldintzari buruzko azalpenetan oinarrituta bi ariketa egingo dituzte:

- baldintza eta ondorioak lotu
- aditzean oker dagoena zuzendu.

1- Entzun aurretik

1.2 Gonbidatua

Gaurko atalean Jon Joneren etxera joango da afaltzera eta zerbait eramango du. Ikasleek horrelakoetan zerbait eramateko ohiturarik ba ote duten eta zer izaten den ohikoena komentatuko dute.

2- Entzun bitartean

2.1 Jonen oparitxoa

Elkarrizketa entzun eta Jonek zer eraman duen jaso behar dute. Beren ohiturekin bat datorren egiaztatuko dute.

Zuzenketa: ardo beltza eta zuria eraman ditu

2.2 Egia ala gezurra?

baieztapenak eta adierazi egia ala gezurra diren. Ondoren, alderatu ditzatela erantzunak ikaskidearekin.

✓	x	
	x	Jonek eskatu dio Joni ezkutuan ibiltzeko bere senar ohiak ez ikusteko
x		Jonek Kla! esaten du “noski”, “jakina”, esan ordez
	x	Joni ez zaio gustatu Joneren orrazkera berria baina ez dio ezer esan berari.
x		Joneri gustatu zaio Jonek polita dagoela esatea

x		Joni Joneren etxean lotan geratzea oso ideia ona iruditu zaio. Halere, ez du lo egiteko asmorik.
	x	Elkarrekin oheratu ondoren erabaki dute gehiagotan ez errepikatzea, xarma gehiago baitute atariko agurrek.

2.2 Joko bikoitza

Etxera iritsi eta hasieran izan duten elkarrizketan nabaritu da Jon eta Jone ez direla adierazten ari hitzez hitz esaten ari direna. Elkarrizketa zati hori entzun berriro eta taula bete dezatela eta adibideak idatzi. Ondoren, kaskidearekin alderatu iegindakoa.

<p>JONE Benetan nahi duena da: Jonek bere orrazkera berriari erreparatzea eta polita dagoela esatea. Adibidea(k): - Ba ez dakit, ez zait guztiz gustatzen, uste dut gehiegi moztu didatela eta kolorearekin ere pasatu egin naiz. - Zaharragoa egiten nau, gehiegi moztu dut.</p>	<p>JON Bere asmoa da: Jonerekin ligatzea (edo oheratzea). Horregatik, neskak entzun nahi duena esateko arazorik ez daukala nabari zaio. Adibidea(k): - Egia da... haziko zaizu, baina niregatik hazten ez bazaizu ere berdin zait, oso guapa zaudela iruditzen zait.</p>
---	---

3. ENTZUN ONDOREN

3.1 Itxurak ere balio du

itxurak eta gure jokaera aldaketak duten garrantziaz hitz egingo dute taldean. Horretarako: 1. Ikasgelara etorri aurretik ariketako galdetegiaren emaitzak partekatuko dituzte ikaskidearekin.

Adibide hauek lagungarriak izan daitezke zure azalpena emateko garaian:

“Ni koadrilako lagunekin afaltzera irteteko ez dut bereziki zaintzen nire itxura. Edozer gauza janzen dut eta berdin zait nola joaten naizen orraztuta. Edonora eta edonorekin ateratzen naizela ere, barrutik ateratzen zait ni naizen bezala izatea, bestearekiko zintzotasunez jokatzeko oso garrantzitsua iruditzen baitzait....”

“Niri, ordea, oso garrantzitsua iruditzen zait irudi ona ematea eta hitzordu baterako geratu naizenean, aurretik prestaketa ugari egin ohi ditut: ile-apaindegira joan, arropa berezia aukeratu edo berria erosi... Egunean bertan ere joan-etorri dezente egiten ditut ispilura. Nire itxura beti hobetu dezakedala pentsatzen dut eta horregatik kostatzen zait erabakia hartzea...”

2. Ondoren, balorazioa egiteko tartea hartuko dute. Erantzun galderei eta elkarri azaldu pentsatzen dutena:

- Neska edo mutila izan berdin jokatzeko al dugu?
- Zertan gara berdinak / desberdinak?
- Horren garrantzitsua al da itxura gure inguruarekin harremanetan jartzeko garaian? Zergatik?

3. Azkenik, talde handira eramango dute bikoteetan hitz egindakoa eta denen artean ondorioak ateratzen saiatuko dira.

BAKARKA EGITEKO ARIKETA

3.1 Alegiazko baldintza

Elkarrizketan “ezer esan ez banizu, ez **zinen** konturatuko” esaldian zergatik erabiltzen du Jonek lehenaldiko adizkia ondoriozko zatian?

- Lehenaldiko baldintzazko esaldietan, orainaldiko lehenaldiko adizkiak ere erabili daitezkeelako

Zein beste era ezagutzen duzu zuk gauza bera esateko?

- “ezer esan ez banizu, ez **zinatekeen** konturatuko”

Orain, erreparatu alegiazko baldintzaren koadroari eta azalpenei.

	Baldintza	Ondorioa
Orainaldia/Geroaldia	etorriKO BANintz (1) eginGO BANu	etorriKO nintzateKE (2) egingo nuKE
Lehenaldia	etorri (IZAN) banintz (3)	etorriKO nintzateKEEN etorriKO nintzen (4)

- (1) Alegiazko baldintza egiteko, -KE gabeko adizkiez baliatzen gara. Baldintza mota hau hipotesiak egiteko erabiltzen da.
- (2) Ondorioa egiteko, ordea, iraganeko eta alegiazko -KEdun adizkiak erabiltzen dira.
- (3) Leku askotan, iraganeko baldintza adierazteko, IZAN gehitzen zaio aditz nagusiari.
- (4) Bestalde, ondorioa adierazteko, bi aditz laguntzaile erabil ditzakegu: iraganekoa eta alegiazkoa. Aditz nagusiak, ordea, geroaldiko forma (etorriKO) hartzen du beti. Hala ere, gaur egungo euskara mintzatuan leku askotan iragana adierazteko, jatorrizko formaren orde, iraganeko adizkiak erabiltzen dira. Erabilera hau oso hedatua dago eta Euskaltzaindiaren onospena dauka. Nolanahi ere, euskara idatzian, eta batez ere eredu jasoan, jatorrizko forma erabiltzea gomendatzen dugu.

Azalpenak kontuan hartuta, egin ondorengo bi ariketak:

1. Lotu baldintzak eta ondorioak.

Zuk dena kontatu bazenit,	ez nintzen/nintzatekeen ibiliko itxurak egiten.
Nik zuei txakurra erosi (izan) banizue,	oso garesti ordainduko nuen/nukeen.
Haiek gu oporretara eramango bagintuzte,	oso ondo pasatuko genuke elkarrekin.
Arboletara igo ez balira,	ez ziren/ziratekeen jauziko
Jokoz kanpo harrapatu izan bagenu,	isuna jarriko genion/geniokeen.
Talde horretan fitxatuko balute,	diru asko irabaziko luke urtero.
Gezurra esan izan balu,	aurpegian igarriko zitzaion/zitzaiokeen.
Eskubaloian hobeto jokatu bazenute,	sariren bat irabazteko aukera izango zenukete.

Irudi hobeia erakutsiko bagenu,	lan horretarako kontratatuko gintuzkete.
Hondartzara joan izan bagina,	azala ondo erreta ekarriko genuen/genukeen.

2. Zuzendu aditzean oker dagoena.

- Guk dirurik izango (**izan**) bagenu, ez ginen hemen egongo.
- Haiek esaten (**esan/esan izan**) balidate, jakingo nuen
- Erabateko itsusia izango bazen (**izan balitz**),ez zen inorekin ezkonduko.
- Berandu joan izango balira (**izan balira**), ez lukete (**zuten**) osorik ikusiko.
- Harriren bat bota balute, kanporatuko (**zituzten**) lukete.
- Etxerako lanak amaitu izan balituzte, ohera joango lirateke (**ziren/ziratekeen**).
- Oporretan egongo balira, ez ziren (**lirateke**) negarrez egongo.
- Egun osoan zutik egon izan balira, oso nekatuta egon ziren (**egongo ziren/ egongo ziratekeen**) .
- Araban bizi balitz,elurretara ohituta egon litzateke (**egongo zen/ egongo zatekeen**).

TRANSKRIPZIOA

JONE: Jon gaur gauean libre al zaude?

JON: Bai.

JONE: Niko bere aitarekin dago badakizu. Nahi duzu etxera etorri afaltzera?

JON: Kla!

JONE: Zer?

JON: Kla! Alemanek klaro esateko Kla esaten dute.

JONE: Batzuetan nire semearen klasekide batekin hizketan nabilela iruditzen zait.

JON: Benga Merkel. Orduan afaltzera gonbidatzen nauzu?

JONE: Bai.

JON Zazpitan azalduko naiz eta lasai, ezkutuan ibiliko naiz zure ex-ak ikus ez nizan.

JONE: Bueno Jon, ez atera gai hori, barkamena eskatu nizun eta beranduago etorri zaitez, gauza bat egin beharra daukat ordu horretan. Agertu zaitez zortziak eta erdietatik aurrera.

JON: Kla!

JONE: Aupa Jon

JON: Ez nekienez arraina edo haragia prestatu duzun, ardo beltza eta zuria ekarri ditut.

JONE: Mozkortu nahi nauzu ezta?

JON: Kla!

JONE: jajajajaja fuerte eman dizu txorrada horrekin!

JON: Uhhh zer usain goxoa

JONE: Ez duzu ezer nabaritzen?

JON: Hombre usainagatik zaila da asmatzen

JONE: Hori ez, begiratu, ez zara konturatu ezta?

JON: Ilea?

JONE: Bai...

JON: Moztu egin duzu...

JONE: Eta tinte (tindu) argiagoa eman.

JON: Kla!

JONE: zer Kla ta zer Kla Jon. Ezer esan ez banizu ez zinateke konturatuko eta.

JONE: Eta gustatzen zaizu?

JON: Oso guapa zaude!

JONE: Bai?

JON: Baietz ba.

JONE: Ba ez dakit, ez zait guztiz gustatzen, uste dut gehiegi moztu didatela eta kolorearekin ere pasatu egin naiz.

JON: Keba, niri gustatzen zait.

JONE: Zaharragoa egiten nau, gehiegi moztu dut.

JON: Haziko zaizu.

JONE: Haziko zaizu esan duzu?

JON: Bai.

JONE: Joder Jon.

JON: Egia da.. haziko zaizu, baina niregatik hazten ez bazaizu ere berdin zait, oso guapa zaudela iruditzen zait.

JONE: Bai? Zuk uste?

JON: Edozein gauza esanda ez dut asmatuko ezta?

JONE: Ez, baina segi esaten oso guapa nagoela.

JONE: Lasai Jon, jasoko dut nik gero.

JON: Ez, ez, nahiago dut orain jaso alde egin aurretik jasotzen ibiltzea baino.

JONE: Ez da beharrezkoa

JON: Memento batean garbituko ditut, total 4 plater besterik ez dira.

JONE: Ez dela beharrezkoa Jon. sartuko dut plater-garbigailuan..

JON: Sartuko ditut nik..

JONE; Jon geratu nahi duzu etxean lotan?

JON: Hemen? Zurekin? Benetan?

JONE: Bai. Geratu nahi duzu?

JON: Geratuko naiz, baina ez dakit lo egiterik izango zaizun.

JONE: Zer ba?

JON: Zuk zer uste?

JONE: Bueno bueno ez izan fantasma, telesail bat ikusiko dugu edo ohera?

JON: Zuk zer uste?

JONE: Jon

JON: Zer?

JONE: Itzali argia etorri hona eta jarridazu eskua bularrean

JON: Kla!

JONE: Ummm, oso ongi egon da.

JON: Bai, errepikatu beharko dugu. Portaleko despedidek badute bere xarma baina hau erosoagoa da.

JONE: Ondoloin, Tigre.

JON: Asko gustatzen zait zure orrazkera berria Jone.

JONE: Lasai Jon ez da beharrezkoa gehiagotan esatea. Lortu duzu nirekin oheratzea.